

**2017KO OTSAILAREN 23AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita hirua.

**HILABETEA:** Otsaila.

**URTEA:** Bi mila eta hamazazpia.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak laurden gutxi

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Aitor Aldasoro Iturbe.

**BILDUAK:** Leire Artola Ugalde

Malu Valles Fernandez

Koldo Agirre Mujika

Miren Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal

Santiago Urdampilleta Dos Santos

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2017ko urtarrilaren 26ko akta onartzea.

2017ko urtarrilaren 26ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

**2.- OBRA ZIURTAGIRIAK:** Zazpiburrieta, 4. arean igogailua jartzeari eta urbanizazio osagarria egiteari buruzko obren 2. ziurtagiria.

Ezagutzera eman da obra zuzendaritzak, aipatutako obrekiko emandako 2. ziurtagiria, HOGEITA SEI MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA LAU EURO ETA HIRUROGEITA BOST ZENTIMOtakoa (**26.744,65** €koa BEZ barne) dela eta kontratuaren udal arduradunak ontzat eman duela.

Bozketa eginda aho batez onartu egin da, Zazpiburrieta, 4.1 unitateko egikaritzeko igogailua jartzeko obrei buruzko 2. obra ziurtagiria, **26.744,65** €koa (BEZ barne).

**3.- ABALAREN ITZULKETA:** CNES ARTZAMENDI, S.A.k erretiratuen etxearen zimendatze obrei buruz eskatutako abal-itzulketari buruzko proposamena.

Lurralde Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“AURREKARIAK

1.- 2015eko martxoaren 18an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Erretiratuen Etxeko azpi-berritze obrak kontratatzea: horretarako baldintza plegua onartuz. Lizitazio prezioa, 107.604,56 €tan gehi BEZ, finkatu zen eta egikaritze epea 7 aste.

2.- Ondoren, Gobernu Batzordeak, 2015eko maiatzaren 14an egindako bileran, ondorengo erabakia hartu zuen:

Lehenik. Erretiratuen Etxeko azpi-berritze obrak, CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI, S.A.ri esleitzea, 95.200,54 €ko prezioan gehi 19.992,11 €, BEZri dagokionak. Guztira: 115.192,65 €.

Bigarren. Obrak egikaritzeko epea, 7 astekoa da, zuinketa aktaren konprobazioa egiten den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Konprobazio hau kontratua sinatzen den hurrengo egunetik zenbatuta, 10 eguneko epean egingo da.

3.- 2015eko urriaren 25ean idatzi zen obren amaierako txostena.

4.- Gobernu Batzordeak 2015eko urriaren 29an egindako bileran, legeak ezartzen duen quorumarekin ondorengo erabakia hartu zuen, Erretiratuen etxeko azpi-berritze obren azken ziurtagiriari buruz eta isunak jartzeari buruz

Lehenik. 127.263,24 €koa (BEZ barne) den obraren azken ziurtagiria onartzea. Horrek suposatzen du esleitutakoarekiko (115.192,65, BEZ barne) %10,48ko igoera. Bide batez, 90.504,52 € kontratistari ordaintzeko agindua ematea, faktura aurkeztu eta gero.

Bigarren. Kontratistari 1.313,16 €ko penalizazioa ezartzea obrak exekutatzera izan duen atzerapenagatik. Hori guztia 2015-10-22an Zuzendaritza Fakultatiboak emandako txostenaren arabera (obra 2015.08-25ean amaitu behar zen eta 2015-10-21ean amaitu da. Guztira, 57 egun) eta baldintza pleguak dioena kontutan izanik, hau da, kontratuaren prezioarekiko 1000 €gatik 0,20ko penalizazioa egun bakoitzeko ( $0,2 \times 115,19€ = 23,03 \text{ €/eguneko}$ ).

Hirugarren. Penalizazioa, azken ziurtagirian dedukzioa eginez burutuko da. Dena dela, kontratistari bost laneguneko epea ematen zaio, bere defentsarako bidezkoa dena adierazi ahal izateko.

5.- 2016ko azaroaren 3an CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI, SA enpresak abala itzultzeko eskatu zuen.

6.- 2016ko abenduaren 29an ION PAYER obren zuzendariak txosten bat idatzi zuen; beste hainbat gauzen artean honela zioen:

*La referida obra de recalce se ejecutó entre los días 7 de julio y 17 de noviembre de 2015, tras un periodo de aproximadamente 2 años y medio en el que se controlaron las fisuras existentes en la edificación, se realizó un estudio geotécnico y se elaboró un proyecto de ejecución*

*La idea inicial consistía en la ejecución de una viga de recalce micro pilotada en toda su longitud y conectada a la base de la edificación transmitiendo al sustrato rocoso los esfuerzos. Además, sería necesario corregir los problemas de las redes de recogida y circulación de agua que se había identificado como parte del problema. Sin embargo, este planteamiento no se pudo llevar a cabo debido a que existe una estructura de contención colindante cuyos anclajes interferirían con la solución de recalce. Finalmente, los trabajos proyectados consistieron en la inyección de resinas expansivas por debajo de los cimientos y la ejecución de una viga armada de recalce micropilotada y anclada al terreno aprovechando las perforaciones realizadas durante el estudio geotécnico, para no afectar a los anclajes colindantes, además de la reparación de las redes de recogida y circulación de aguas.*

*De este modo la capacidad del recalce proyectado dependía de la combinación de la eficacia de las resinas inyectadas, la eficacia de los 3 únicos micro pilotes y los 2 anclajes que era posible ejecutar sin poner en riesgo más elementos y la eficacia del complemento a nivel de apoyo de la viga de recalce. Además de la reparación de las redes de recogida y circulación de aguas.*

Por todo esto la obra de recalce consistía en una intervención delicada que debía ejecutarse según unas fases establecidas en proyecto y considerando una serie de medidas de seguridad que garantizaran la correcta y eficiente ejecución.

Sin embargo, durante los trabajos de ejecución se sucedieron diversos problemas, algunos de derivados de una mala programación y otros como consecuencia de una puesta en obra poco cuidadosa para una obra de estas características:

- Retrasos importantes que obligaron a mantener las excavaciones abiertas por más tiempo de la cuenta, lo que provoca una pérdida de capacidad de los materiales y la exposición de estos a la intemperie.
- Los trabajos de perforación de micropilotes y anclajes, que se habían proyectado contemplando todas las medidas de seguridad posibles para no afectar negativamente a una edificación con una serie de problemas estructurales, sufrieron todo tipo de complicaciones con inyecciones de caudales desmesurados de agua a presión y sin control en el terreno, debido al empleo de campanas sin alivio, lo que supone un lavaje acelerado del subsuelo a nivel de cimientos, que es el origen de la patología que se estaba tratando de resolver.
- Elección de maquinaria inadecuada que una vez en obra no podía ejecutar los anclajes con la inclinación proyectada
- Necesidad de repetir algunos de los elementos ejecutados.

Una vez finalizados los trabajos, desde el Ayuntamiento se solicitó el seguimiento de las patologías previsto en proyecto con el fin de verificar la efectividad de la intervención. A día de hoy no se ha podido observar que se hayan detenido las deformaciones en todos los puntos donde estas se habían identificado, por lo que se recomienda no devolver el aval cautelarmente a la espera de confirmar su efectividad durante los próximos 6 meses.

## OINARRIAK JURIDIKOAK

Legeria aplikagarria:

- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretua.
  - 100. artikulua: Bermeei dagozkien erantzukizunak.
  - 102. artikulua: Bermeak itzultzea eta ezereztea.

Horrenbestez, LURRALDE batzordeak Tokiko Gobernu Batzarrari honako erabaki proposamen hau egin nahi dio:

**Lehenengoa.**- Abalaren kautelazko atxikipena egitea 6 hilabetez, Jon Payer obra-zuzendari jaunaren txosten teknikoak dioenari jarraikiz.

**Bigarrena.**- Sei hilabeteko epe hori igaro ondoren, eta zimentazioaren azpi-berritzearen egonkortasuna ziurtatzeko beharrezkoak diren frogak egin ondoren, bidezkoa bada, zimentazioaren obra egonkortzeko beharrezkoak diren obrak egiteko aginduko da edo behin betiko hartuko dira; zimentazioaren kostua kontratistak ordaindu beharko du.

**Hirugarrena.**- Erabaki hau jakinaraztea kontu-hartzaileari, kontratistari eta dagokion zuzendariari.

**4.- BERANDUTZE INTERESAK:** CNES URBYCOLAN, S.L. aurkeztutako eskaera, Oriamendi kaleko obren inguruan.

Lurralde Batzordearen proposamenaren berri eman da, hau da:

“Berandutze interesen erreklamazioa, URBYCOLAN, S.L.ek eskatutakoa

## AURREKARIAK

1.- 2016-01-07, 2016-04-28 eta 2016-05-26ko Gobernu Batzordeko erabakiak, Oriamendi kalea urbanizatzeko obrak likidatzeari buruz.

2.- URBYCOLAN, S.L.kontratatik, aurkeztutako erreklamazioa, ondorengo diru kopuruak ordaintzeko eskatuz:

- 26.033,50 € berandutze interés kontzeptuan.
- 9.718,82 €, kobratze kostu-kontzeptuan.

3.- Jarraian transkribatzen den 2016-12-24ko txosten juridikoa:

### ANTECEDENTES.-

*Los antecedentes que concurren, en lo relativo a la recepción y liquidación de las reseñadas obras, se recogen en los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local en las sesiones celebradas los días 07-01-2016, 28-04-2016 y 26-05-2016.*

*Con fecha 19-07-2016, la mercantil URBYCOLAN S.L. ha presentado en la Entidad Municipal una reclamación en la que solicita que se le abonen las siguientes cantidades:*

- .- 26.033,50 € en concepto de intereses de demora.*
- .- 9.718,82 € en concepto de costes de cobro.*

### ANÁLISIS JURÍDICO.-

*I.- Sobre las circunstancias que concurrieron en la recepción y liquidación de las reseñadas obras, me remito al informe que elaboré con fecha 28-12-2015.*

*II.- Centrándonos en la reclamación presentada por URBYCOLAN S.L., para su resolución se hace necesario acudir, en un primer momento, a lo dispuesto en el art. 216.4 del TRLCSP, donde se determina :*

*“ 4. La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de las certificaciones de obra o de los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de los bienes entregados o servicios prestados, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 222.4, y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para que haya lugar al inicio del cómputo de plazo para el devengo de intereses, el contratista deberá de haber cumplido la obligación de presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente, en tiempo y forma, en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las mercancías o la prestación del servicio.*

*Sin perjuicio de lo establecido en los artículos 222.4 y 235.1, la Administración deberá aprobar las certificaciones de obra o los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de los bienes entregados o servicios prestados dentro de los treinta días siguientes a la entrega efectiva de los bienes o prestación del servicio, salvo acuerdo expreso en contrario establecido en el contrato y en alguno de los documentos que rijan la licitación, siempre que no sea manifiestamente abusivo para el acreedor en el sentido del artículo 9 de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales .*

*En todo caso, si el contratista incumpliera el plazo de treinta días para presentar la factura ante el registro administrativo, el devengo de intereses no se iniciará hasta transcurridos treinta días desde la fecha de presentación de la factura en el registro correspondiente, sin que la Administración haya aprobado la conformidad, si procede, y efectuado el correspondiente abono.”*

*También resulta de aplicación al caso que nos ocupa la previsión recogida en el art. 235.1 del TRLCSP :*

*“ Artículo 235. Recepción y plazo de garantía*

- 1. A la recepción de las obras a su terminación y a los efectos establecidos en el artículo 222.2 concurrirá el responsable del contrato a que se refiere el artículo 52 de esta Ley, si se hubiese nombrado, o un facultativo designado por la Administración representante de ésta, el facultativo encargado de la dirección de las obras y el contratista asistido, si lo estima oportuno, de su facultativo.*
- 2. Dentro del plazo de tres meses contados a partir de la recepción, el órgano de contratación deberá aprobar la certificación final de las obras ejecutadas, que será abonada al contratista a cuenta de la liquidación del contrato en el plazo previsto en el artículo 216.4 de esta Ley.”*

*Como consecuencia de los hechos que acaecieron, y con abstracción de que no procede determinar en este momento quién fue el responsable ó responsables de la demora, lo cierto es que el Ayuntamiento de Beasain no actuó en los términos que se establecen en el transcrito art. 235 del TRLCSP, pues no se expidió la certificación final de las obras, ni se aprobó ésta en los plazos establecidos, y la contrata tampoco presentó la factura correspondiente.*

*En el orden indicado, y si bien el devengo de intereses por el retraso en el abono de la certificación requiere que la contrata haya presentado la factura – inciso final del art. 216.4 -, en nuestro caso dicha ausencia está justificada por el hecho de que la Dirección de las obras no hubiera expedido la certificación liquidación ó la certificación final.*

*Por otra parte, los términos en que se adoptó el acuerdo por la Junta de Gobierno Local en la sesión de fecha 26-05-2016, en lo relativo a establecer que la recepción de las obras se produjo el 23-12-2014, determina el momento a partir del cual procede computar los intereses de demora, esto es, el 24-04-2015.*

*III.- El tipo de interés de demora para el primer y segundo semestre del año 2015, así como para el primer semestre del ejercicio 2016, lo establecieron las Resoluciones de*

30 de diciembre de 2014, y de 29 de junio y 29 de diciembre de 2015, de la Secretaría General del Tesoro y Política Financiera, por la que se publica el tipo legal de interés de demora aplicable a las operaciones comerciales durante el primer semestre natural del año 2015. En los tres semestres reseñados, el tipo se fijó en el 8,05%.

IV.- En la reclamación presentada por URBYCOLAN S.L., el cálculo de los intereses de demora, que asciende a 26.033,50 €, se realiza tomando como base el importe de 274.511,88 €, esto es, el del total de la certificación. Dicho cálculo resulta incorrecto, como a continuación fundamentaremos.

En efecto, el montante total de la reseñada certificación, se desglosa en dos conceptos:

- Base imponible : 226.869,32 €.
- IVA : 47.642,56 €.

Pues bien, el cálculo de los intereses moratorios ha de realizarse tomando como referente únicamente la base imponible, y sin incluir el IVA.

Así lo han venido a determinar distintos pronunciamientos jurisdiccionales, entre los que citamos a la sentencia del Tribunal Superior de Justicia de Madrid, de fecha 05-06-2014, y otras que se vienen a relacionar en el mismo:

“ CUARTO.- Por otro lado, considera la Administración demandada que es improcedente incluir las cantidades correspondientes al I.V.A. en los importes de las facturas que han de servir de base cálculo para tales intereses moratorios.

.....

Esta Sala tiene dicho, entre otras en Sentencias de 17 de Octubre de 2.002 (JT 2003, 1103) y 6 de Marzo de 2.006 (JUR 2006, 149541) , en supuestos similares al hoy planteado en el que el pago del precio total del contrato se realiza mediante abonos a cuenta justificados en la correspondiente factura o certificación - tratándose, por tanto, de un supuesto encuadrable en el artículo 75.2 de la Ley 37/1.992 -, que no procede incluir el I.V.A. en la base de cálculo de los intereses de demora, pues la cantidad sobre la que aplicar los referidos intereses no puede ser otra que el principal de la deuda, esto es, el precio cierto de la contrata y no el importe del I.V.A. girado sobre la misma, y ello por las razones siguientes:

a) Se piden intereses de demora - de carácter obviamente resarcitorio- sobre una cantidad tributaria respecto de la cual la empresa no sufre perjuicio alguno por el retraso en el pago; quien podría exigir el pago de los intereses moratorios es la Administración Tributaria que sufre los efectos perjudiciales del retraso en el cobro del I.V.A., pero no la empresa demandante que, en realidad, dado el carácter neutral del impuesto, no lo soporta mientras no recibe el pago de la cuota tributaria; la empresa no tiene que "adelantar" a la Hacienda Pública, antes de su devengo, el pago del tributo (hecho que sí legitimaría la solicitud de resarcimiento de los intereses sobre tal cantidad) sino que se limita a repercutirlo sobre la entidad contratante, quien por su parte queda obligada a soportarlo, pero no con anterioridad "al momento del devengo de dicho impuesto".

b) Si el I.V.A. se devenga, pues, precisamente en el momento del cobro parcial del precio por los importes efectivamente percibidos cuando se trata de operaciones sujetas que originen pagos anticipados, hasta tanto dicho pago no se haya producido, de hecho no se ha producido tampoco el devengo del tributo, ni el sujeto sobre el que

*ha de repercutirse el importe del mismo tiene obligación de soportar dicha repercusión, por lo que debe desestimarse esta pretensión de la recurrente.*

*A lo expuesto debe añadirse que, aún en el supuesto de que el devengo del impuesto se hubiera producido, conforme al artículo 75.1 de la Ley 37/1.992, la inclusión de la cantidad a satisfacer por I.V.A. en la suma computable a los efectos de exigencia de intereses se hace depender de la circunstancia de que el impuesto hubiera sido efectivamente satisfecho por la parte contratista, lo que hubiese originado el consiguiente perjuicio al no haber percibido en el momento el importe de lo abonado.*

*En dicho sentido se ha pronunciado el Tribunal Supremo en Sentencia de 12 de Julio de 2.004 (RJ 2004, 4240), y esta Sala en su Sentencia de 15 de Diciembre de 2.006, entre otras, señalando que si el fundamento de la obligación de satisfacer intereses moratorios se basa en el perjuicio inferido al acreedor que no percibe puntualmente el precio estipulado, lo que no necesita de otra demostración que la realidad del retraso en el pago, cuando se trata del I.V.A. correspondiente a cada certificación o factura, la cuestión del perjuicio es diferente, porque el contratista no es "acreedor" del I.V.A., por lo que el pago tardío de las certificaciones o facturas solo le originará un perjuicio real y efectivo si acredita debidamente que el efectivo abono del impuesto se ha producido, pero si no se ha abonado no se puede hablar de perjuicio, aunque las certificaciones o facturas se paguen con retraso, y ello porque el contratista no ostenta un derecho sobre la cuota del I.V.A., pues dicha cuota no le pertenece a él sino a la Administración Tributaria. En consecuencia, la inclusión del I.V.A. en la base del cálculo de los intereses de demora que nacen del pago tardío de las certificaciones o facturas, solo procederá si el contratista demuestra que ha ingresado el I.V.A. correspondiente a cada certificación o factura con cargo a sus fondos y con anterioridad al pago de cada una de las certificaciones o facturas por la Administración contratante, siendo la carga de la prueba del contratista."*

*En el caso que nos ocupa, URBYCOLAN S.L. emitió la factura correspondiente con fecha 05-05-2016, esto es, no abonó con anterioridad a la Hacienda Foral de Gipuzkoa el IVA, por lo que no procede incluir el impuesto en el cálculo de los intereses moratorios.*

*Por consiguiente, el montante de los reseñados intereses que le corresponden a la mercantil reclamante, resulta de la siguiente liquidación:*

- Fecha de inicio : 24-04-2015
- Fecha finalización : 24-06-2016
- Días transcurridos : 428
- % Interés : 8,05%
- Cuantía de los intereses moratorios : 21.415,22 €.

*V.- Por último, la reclamación de URBYCOLAN S.L. incluye también la indemnización por los costes que le ha ocasionado el cobro de la cantidad demorada. A tal efecto, acompaña dos facturas del despacho de abogados J&A Garrigues S.L.P., la primera por importe de 6.080,13 € ( 5.024,90 € de base imponible y 1.055,23 € por el IVA), y la segunda de 3.638,69 € ( 3.007,18 € de base imponible y 631,51 € por el IVA ).*

*A propósito de este concepto, el art. 8 de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, dispone que el acreedor tendrá derecho a reclamar al deudor una indemnización por todos los*

costes de cobro debidamente acreditados que haya sufrido a causa de la mora de éste, y los pronunciamientos de los Tribunales han venido reiterando que a la hora de determinar éstos costes, se han de aplicar los principios de transparencia y proporcionalidad ( por todas, la sentencia del TSJ de Cataluña de 13-07-2015 ).

La primera de las facturas reseñadas alude en el concepto de la misma a la “ Facturación de honorarios por redacción de Informe Legal para reclamación de pago al Ayuntamiento de Beasain “, en tanto que en la segunda se recoge como concepto la “ Facturación de honorarios por servicios profesionales de asesoramiento legal prestados a la Sociedad “. Esto es, en la última no se acredita que el trabajo desempeñado lo haya sido en relación al expediente que nos ocupa.

Por consiguiente, analizados los escritos presentados por URBYCOLAN S.L. en el procedimiento que se ha seguido, su complejidad, la circunstancia a que se ha hecho referencia en el párrafo precedente, así como la proporcionalidad a que se vienen refiriendo los pronunciamientos de los Tribunales, se entiende procedente el abono del importe de la primera de las facturas, de cuyo montante total se deberá excluir el IVA, que ya ha sido deducido por la mercantil reclamante, al constituir un concepto neutro para ésta.

Conclusiones.-

Se informa en el sentido de que procede estimar parcialmente la reclamación formulada por la mercantil URBYCOLAN S.L. y abonarle los siguientes importes :

- .- 21.415,22 € en concepto de intereses de demora.
- .- 5.024,90 €, por los costes de cobro originados.

#### OINARRI JURIDIKOAK

- Sektore Publikoaren Kontratu Legearen Testu Bateratua: 216 art. (prezioaren ordainketa) eta 217. Art. (Administrazio Publikoetako zorrak ordaintzeko prozedura).
- Ebazteko eskumena duen organoa: Gobernu Batzordea, reklamazioa eragiten duen obren kontratazio organoa izateagatik.

Horren ondorioz, Lurralde Batzordeak Gobernu Batzordeari ondorengo proposamena egiten dio:

**Lehenik.** URBYCOLAN, S.L.ek aurkeztutako erreklamazioa, zati batean onartzea eta horren ondorioz, diru kopuru hauek ordaintzea:

- 21.415,22 €, berandutze interés kontzeptuan.
- 5.024,90 €, sortutako ordainekta kostuengatik

**Bigarren.** Erreklamazioa aurkeztu duenari erabaki honen berri ematea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsoen aipamena eginez.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:



Koldo Agirre jaunak adierazi du beraien botoa aurkakoa izango dela, bere momentuan ere Oriamendi kaleko obren likidazioari buruz Gobernu Batzordeak hartutako erabakiaren aurka azaldu zirelako.

Beste guztiak proposamenaren alde azaldu dira.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ-PNV, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 2 (Beasaingo EH BILDU)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

**5.- OBRAK KONTRATATZEA:** Zazpiburrieta kalea berrurbanizatzeko obrak kontratatzeko, proiektua eta baldintza plegua onartzeko proposamena.

Ezagutzera eman da Lurralde batzordearen proposamena, hau da: aipatutako obrak kontratatzeko proiektua eta baldintza plegua onartzea eta deialdia publikoa egitea, GAOean iragarkia argitaratuz.

Baldintza pleguaren xehetasun nagusiak hauek dira:

1.- *Prozedura:* irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa:* 249.099,59 € BEZ kanpo, 301.410,51 € BEZ barne.

4.- *Egikaritze epea:* 6 hilabete.

5.- *Kaudimen ekonomiko eta finantziario:*

Lizitatzailerik edo hautagaiaren urteko negozio-bolumena izango da, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez kontratuaren balio estimatua halako bat eta erdi izan beharko dena gutxienez. (373.649,39 €, kontratu honen kasuan).

Lizitatzailerik edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez (onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak) egiaztatuko da, enpresaria erregistro horretan balego izen emanda, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bidez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urteko negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuaren eta urteko kontuen bidez egiaztatuko dute.

6.- *Kaudimen teknikoa:*

- Kontratuaren xede den lanaren mota edo izaera bereko lanetan metatutako esperientzia, azken hamar urteetan egindako lanen zerrendarekin egiaztatuko dena, betiere, lan horiek kontratuaren xede den lanaren mota edo izaera berekoak

eta obrak ongi egin izanaren ziurtagiriz bermatuak izanik. Gainera, gutxieneko betekizuna izango da lan handiena gauzatu duen urteko zenbateko metatua kontratuaren balio estimatuaren parekoa edo % 70etik gorakoa izatea (226.057,88 € kontratu honen kasuan).

- Obrak gauzatzeko erabiliko diren makina, material eta ekipamendu teknikoan adierazpena, dagokion egiaztagiriak atxikita. Halaber, horien dedikazioa erabatekoa, partziala edo aholkularitzakoa izango den adierazi beharko da (II. ERANSKIN-EREDUA BETEZ).
- Jarraian adierazten diren ziurtagiri GUZTIAK izatea:

1. ISO 9001 ziurtagiria, (**Kalitatea Kudeatzeko Sistema**).
2. ISO 14001 ziurtagiria (**Ingurumen arloko Kudeaketa Sistema**).
3. OHSAS 18001 ziurtagiria, (**Laneko Segurtasun eta Osasun arloko Kudeaketa Sistema**).

- Halaber, obren egikaritzean parte hartuko duten teknikarien izen-zerrenda gaineratu beharko da derrigorrez, haien kalifikazioa eta esperientzia profesionala egiaztatzeko agiriak atxikiz. Gainera, langile horien lanaldia erabatekoa, partziala edo aholkularitzakoa den (II. ERANSKIN-EREDUA BETEZ) adierazi beharko da.
- Obrako Buru modura jardungo duen pertsonaren izendapena ere adierazi egin beharko da derrigorrez. Horretarako, obrako buru modura jardungo duen pertsonaren eta proposatzen diren gainerako langileen curriculum vitae eta eskatzen diren titulazioen agiriak aurkeztu beharko dira.

6.- *Klasifikazioa*: G Taldea, 4 Azpitaldea, 2 kategoria. Ez da eskatzen, baina aurkeztuko balitz kaudimena ordezkatzuko luke, obra arduradunaren izendapena izan ezik.

7.- *Espedientea*: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoan pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian ([www.beasain.net](http://www.beasain.net)). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

8.- *Proposamen eredu*a: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

9.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

10.- *Adjudikazio irizpideak*:

- Proposamen ekonomikoa: 50 puntu.
- Memoria teknikoa: 40 puntu.
- Euskara: 5 puntu.
- Hobekuntzak: 5 puntu.

11.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua*: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunetan eta orduan egingo da.

12.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Idazkari andreak ohartarazi du, enpresek “Bai Euskarari” edo “Bikain” agiriak izateak esleipen irizpideetan baloratzea ez dela zuzena, irizpide horrek ez duelako kontratuaren helburuarekin zer ikusirik.

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du, hori horrela izanda bere botoa aurkakoa izango dela.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 5 (EAJ-PNV, Beasaingo EH BILDU)  
Aurkako botoak: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)  
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

## **6.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA:**

**a.- Egitasmo Orokorraren dokumentua egitea.** Baldintza plegu administratiboa nahiz teknikoa onartzeko proposamena.

Ezagutzera eman da Lurralde batzordearen proposamena, hau da:

**Lehenik.** Beasaingo Hiri-Antolamendurako Plan Orokorra idazteko zerbitzua prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko deialdi publikoa egitea, baldintza plegu administratiboa nahiz teknikoa eta karatula onartuz.

**1.- Prozedura:** irekia publikitatearekin: Armonizatu moduan arautzen dena

**2.- Izapidetzea:** arrunta

**3.- Lizitazio prezioa:** 340.000,00 € gehi BEZ (71.400,00 €). Guztira: 411.400,00 € (BEZ barne)

**4.- Egikaritze epea:** 4 ekitaldi ekonomiko (2017-2020).

**5.- Kaudimen ekonomiko, finantziario eta profesionala buruzko agiriak:**

Kaudimen ekonomikoa: arrisku profesionalen gaineko kalte-ordainen aseguru bat izatearen ziurtagiria izatea, 250.000,00 €koa.

Hauek dira kontratazio honetan parte hartzeko, gutxienez, eskatzen diren giza baliabideak:

- Taldeko arkitekto, zuzendari bat.
- Aholkulari juridiko bat, zuzenbidean lizentziatua.
- Ingurumen arloko teknikari bat edo enpresa profesional espezializatua.
- Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria.
- Topografiako teknikaria edo enpresa profesional espezializatua.
- Teknikaria, gizarte izaerako betebeharrak betearazteaz arduratuko dena edo enpresa profesional espezializatua.

- Komunikazioko teknikaria edo enpresa profesional espezializatua.

Taldeko zuzendariak (arkitektoa) jarraian aipatzen diren lan moten artean, gutxienez bi (2) lan taldeko Zuzendari-arduradun modura burutu izana egiaztatu beharko du, plangintza orokorrarekin lotuta eta proposamenak aurkezten diren egunean behin betiko onarpena izanik:

- 7.000 biztanletik gorako udalerriri dagokion Hiri-antolamendurako Plan Orokorra.
- 7.000 biztanletik gorako udalerriri dagokion Arau Subsidiarioen berrikuspena.

Aholkulari juridikoak aurrez adierazitako lan moten artean (baldintza berdinetan), gutxienez bat (1) taldeko aholkulari juridiko modura burutu izana egiaztatu beharko du, plangintza orokorrarekin lotuta.

#### **6.- Adjudikazio irizpideak:**

##### Matematikoki zenbatu ezin diren irizpideak (B gutun-azala):

a) Memoria-diagnosia: gehienez, 45 Puntu.

- Egungo egoeraren azterketa, arazo garrantzitsuenak adieraziz. Atal honetan udalerrian ebatzi gabeko arazoen detekzioa nahiz udal araudian bertan ebazteko gabeziak, kontradikzioak edota bestelako alderdiak balioetsiko dira (17 puntu).
- Udalerraren egoera aplikagarri diren udalaz gaindiko arauen ikuspegitik (10 puntu).
- Datozen urteetarako kontuan hartzeko esku-hartzeko proposamen eta jarraibideak, hala dagoeneko garatutako eremuetan nola garatzeke daudenetan, edo ez urbanizagarrietan (10 puntu).
- Egungo egoerari buruz egindako azterketaren eta esku-hartzeko planteatutako proposamen eta jarraibideen arteko koherentzia (8 puntu).

Aurkezteko dokumentazioan dokumentu grafiko eta idatzizkoa barnera daiteke. Gehienez, 2 aurpegitan idatzitako 10 orriko dokumentu bat aurkeztu ahal izango da, hizkiaren gutxienerako tamaina arial 10 izanik eta formatua A4 izanik, eta 8 plano. Planoen kasuan, gehienez A0 tamaina finkatzen da. Gehienez ezarritako orrialde kopuruaren edo elementuen gainetik, hurrenez hurren, 5 orrialdeko, edo zatiko, edo plano bakoitzeko -2 puntuko zigorra aplikatuko da.

b) Metodologiaren proposamena: gehienez, 25 Puntu.

Horretarako, lanak gauzatzeari buruzko Plan bat eratuko da, honakoak barneratuz:

- Lanetan erabiliko den metodologia azaltzen duen memoria (Udaletxe kanpoan nahiz barnean egiteko lanen antolaketa, koordinazioa azpikontratutako enpresekin, kudeaketa arloko konpetentziak dituzten erakundeekin, etab.), lizitatzailleak egiteko konpromisoa hartu duen guztia argi eta zehaztasunez adierazita, herritarren partaidetza barne (9 puntu).
- Lanak gauzatzeko egutegi osoa, pleguan ezarritako epe partzialekin bateragarria. Atal honetan lan ezberdinak gauzatzeko epe partzialen programazioa eta estimazioa balioetsiko

dira. Horretarako, eskaintza metodologikoari dagokionez, plegu honetan barneratutako hobetzea eragiten duten programatutako lanen hileko estimazioa eta metatua egingo da (9 puntu).

- Parte hartu behar duen lantaldearen deskribapena, hala badagokio, azpikontratatzea aurreikusten den kontratuaren zatia adieraziz. Bertan portzentajea adierazi beharko da eta azpikontratatzen izena edo enpresa-profila identifikatu beharko da. Hori guztiari, faseka zehaztuta (7 puntu).

Dokumentazioan dokumentu grafiko eta idatzizkoa barnera daiteke. Gehienez, 2 aurpegitan idatzitako 10 orritan garatu beharko da, hizkiaren gutxieneko tamaina arial 10 izanik eta formatua A4 izanik. Elementu, grafiko edo taularen bat argitasun gehiagoz islatzeko asmoz orrialde kopuru handiagoa beharrezkotzat jotzen bada, gehienez, 2 orrialde onartuko dira, A3 tamainan. Gehienez ezarritako elementu kopurua gainditzen denean, 5 orrialde edo zati bakoitzeko, -2 puntuko zigorra aplikatuko da (20 A4 eran eta 2 A3 eran).

- c) Herritarren partaidetzarako proposamen eta mekanismoak, plegu teknikoaren 8. artikuluan xedatutakoaren osagarri. gehienez, 10 Puntu.

Dokumentazioan dokumentu grafiko eta idatzizkoa barnera daiteke. Gehienez, 2 aurpegitan idatzitako 6 orritan garatu beharko da, hizkiaren gutxieneko tamaina arial 10 izanik eta formatua A4 izanik. Elementu, grafiko edo taularen bat argitasun gehiagoz islatzeko asmoz orrialde kopuru handiagoa beharrezkotzat jotzen bada, gehienez, 2 orrialde onartuko dira, A3 tamainan. Gehienez ezarritako elementu kopurua gainditzen denean, 5 orrialde edo zati bakoitzeko, -2 puntuko zigorra aplikatuko da (12 A4 eran eta 2 A3 eran).

Matematikoki zenbatu daitezkeen irizpideak (C gutun-azala):

- a) Eskaintza ekonomikoa: gehienez, 20 Puntu.

Eskaintza ekonomikoa atxikitako formularekin bat etorritik balioetsiko da. Formula horren arabera gehienezko puntuazioa (20 puntu) emango zaizkio eskaintza ekonomiko baxuenari, baldin eta neurritz kanpokotzat jotzen ez bada, eta eskaintza horren balioetik behera daudenei, eta gutxieneko puntuazioa (0 puntu) emango zaio lizitazio-aurrekontuari.

Muturreko balio horien artean dauden aurrekontu-eskaintzen balioespena dagozkion muturreko balioen interpolazio lineala eginez lortuko da, kontuan hartuz honakoa:

P.L.	Lizitazioaren aurrekontua
O.E.M.B	Neurritz kanpokoa ez den eskaintza ekonomiko baxuena
O.E.x	x enpresaren eskaintza ekonomikoa
V.max.	Gehienezko balioespena
Vx	x eskaintzaren balioespena, emaitza hau izanik:

$$Vx = V. \max x [(PL - Oex)/(PL - OEMB)]$$

Neurritz kanpoko balioak dituzten eskaintzak: Neurrigabekotzat joko dira aurkeztutako proposamen guztien behe-portzentajeen batez besteko aritmetikoen azpitiko portzentajezko 10 puntuko behe agertzen duten eskaintzak. Edonola ere, portzentajezko 20 unitatetik gorako beheak neurritz kanpokotzat joko dira.

Aurkezteko modua: Pleguaren I. eranskineko eredu.

Bi proposamen edo gehiagok puntuazio bera jasotzen dutenean, esleipenerako lehentasuna emango zaio "Memoria-diagnosia" atalean puntuazio gehien jaso duen

lizitatzaileri. Berdinketa mantentzen bada, "metodologia" atalean puntuazio gehien jaso duen lizitatzaileri emango zaio lehentasuna, eta ondoren prezioari erreparatuko zaio. Berdinketak jarraitzen badu, zozketa egingo da.

**7.- Proposamen eredu:** Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

**8.- Eskaintzak** aurkezteko azken eguna, tokia eta ordua: Europako Batzordera kontratuaren iragarkia bidaltzen denetik zenbatzen hasita 40 egun, Udalaren Harrera Bulegoa (iGunea) Loinazko San Martin Plaza, 1 20200 Beasain, 7,30etatik 14,30etara.

**9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:** plika irekitzea kontratistatzailearen profileen argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

**10.- Aurkeztu beharreko agiriak:** Lizitatzailerek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

"Lehenengoa. ONESTEA BEASAINGO PLAN OROKORRAREN hirigintza-dokumentua idazteko plegu tekniko eta administrazioak nahiz karatula, eta deialdi irekia EGITEA eta iragarkia argitaratzea Europar Batasuneko Egunkarian, EAOean eta GAOean.

Bigarrena.- Agustin Perez. de Nancles Castelruiz udaleko aparejadorea IZENDATZEA kontratuaren arduradun gisa."

**b.- Beasaingo udalerrian gizarte-eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua.** Baldintza plegu administrazioa nahiz tekniko onartzeko proposamena.

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena, hau da:

**Lehenik.** Beasaingo udalerrian gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko deialdi publikoa egitea, baldintza plegu administrazioa nahiz tekniko onartuz.

**1.- Prozedura:** irekia publizitatearekin

**2.- Izapidetzea:** arrunta

**3.- Lizitazio prezioa:**

Kontratuaren lehen urtea ( eskaintzaren prezioa):

- Hezitzailearen ordua: 29,98€
- Psikologoaren ordua: 66,63€
- Ikerketa txostena: 700€/kasua

Kontratuaren bigarren urtea:

- Hezitzailearen ordua: 30,28€
- Psikologoaren ordua: 67,30€
- Ikerketa txostena: 707€/kasua

Kontratuaren hirugarren urtea:

- Hezitzailearen ordua: 30,58€
- Psikologoaren ordua: 67,97€
- Ikerketa txostena: 714,07€/kasua

Kontratuaren laugarren urtea:

- Hezitzailearen ordua: 30,98€
- Psikologoaren ordua: 68,65€
- Ikerketa txostena: 721,21€/kasua

Esleipenaren prezioa lizitazioarena baino txikiagoa bada, 2.urteko prezioa eta hurrengokoak portzentaje berdinean gutxituko dira.

Lizitazio prezioan sartuta egongo dira gastu eta zerga guztiak, dietak, garraio gastuak, telefono gastuak, etab.

Prezio hauetan ez dago B.E.Z. sartuta.

Programa bakoitzeko urteko ordu kopuru gehiengoa, honakoa izango da:

- 1 programa:
  - Hezitzailea: 3.840 ordu
- 2. programa:
  - Hezitzailea: 1.936 ordu
  - Psikologoa: 384 ordu
- 3. programa:
  - Hezitzailea: 484 ordu
  - Psikologoa: 100 ordu
- 4. programa:
  - Hezitzailea: 768 ordu
- 5. programa:
  - Psikologoa: 50 ordu
- 6. programa:
  - Hezitzailea: 156 ordu
  - Psikologoa: 126 ordu
- 7. programa:
  - Hezitzailea: 18 ordu
  - Psikologoa: 18 ordu

Urteko ordu kopuruen estimazioa:

- Hezitzaileak: 7.202 ordu
- Psikologoa: 678 ordu

Lehenengo urteko kontratuaren prezio estimatua 268.591€koa da zerbitzuak emateko.

**4.- Egikaritze epea:** lau urte bi urte gehiago (urtez urteko epealdiekin) luzatzeko aukerarekin

**5.- Kaudimen ekonomiko, finantziario eta teknikoari buruzko agiriak:**

a) Arrisku profesionalen kalte-ordainari erantzuteko 150.000€ko aseguruaren egiaztatpena.

b) Titulu akademikoak eta profesionalak:

b.1) Enpresaren zuzendaritzako pertsonalanak:

- Unibertsitate-mailako titulazioa
- Prestakuntza osagarria gizarte-eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuaren barne dauden programen arloan.
- Euskararen ezagutza kreditatzeko titulazioa.

b.2) Kontratua gauzatzeaz arduratuko diren pertsonak,:

- Psikologoa:  
-Psikologian lizentziatua edo gradua izateaz gain, kolegiatuta egon behar dute Psikologoien Elkargo Ofizialean.

- Familia terapia sistemikoan formazioa kreditatzea, gutxienez 400 ordukoa.
- Euskararen ezagutza kreditatzeko titulazioa.

- Hezitzailea:

- Diplomatura edo gradua izatea:

- 1.-Gizarte hezkuntzan edo Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialaren gaitasun-agiria izatea gizarte hezitzaile moduan aritzeko.

- Edo

- 2.- Gizarte lanean.

- Euskararen ezagutza kreditatzeko titulazioa.

c) Azken bost urteetan egindako lan edo zerbitzu esangurutsuen zerrenda kreditatua, prezioa, data, eta zerbitzu horren hartzailea publikoa edo pribatua izan den zehaztuz. Lan horiek egiaztatzeko agiriak, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, eskuduntza duen organoak emandakoak edo ikus- onetsitakoak izango dira. Eta hartzailea pertsona pribatu bat denean, honek egindako ziurtagiri baten bidez, edo ziurtagiririk ezean, enpresako arduradunaren aitortpen baten bidez egiaztatuko dira.



d) Kontratua exekutatu behar duen langilegoen adingabekoekin lana egiteko aurrekari penalen ziurtagiria, edo eta kontratua formalizatu baina lehen aurkezteko konpromisoa.

**6.- Espedientea:** administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian ([www.beasain.eus](http://www.beasain.eus)). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

**7.- Proposamen eredu:** Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

**8.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua:** Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira 7,30etatik 14,30etara iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, agitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita 20 eguneko epean.

**9.- Adjudikazio irizpideak:**

**1.- Proposamen ekonomikoa:** Gehienez 25 puntu era honetan banatuta:

- Hezitzailearen ordua: 18p arte.
- Psikologoaren ordua: 5p arte.
- Ikerketa txostena: 2p arte.

Plegu honetako 3. Klausulan ezartzen den lizitazio prezioa gainditzen duen proposamenik ez da onartuko.

Prezio ekonomikoanari emango zaio puntuazio gehien. Gainerako eskaintzen puntuazioa zehazteko formula jakin bat aplikatuko da: prezio baxuenaren eta lizitatzzaileak egindako eskaintzaren arteko zatidurak ematen duen emaitza, modalitate baitan aplikagarri den puntu kopuru osoarekin biderkatzea. Hau da:

$LP = (Eb/Le) * \text{modalitate bakoitzeko puntuazioa}$

LP= Lizitatzzailearen puntuazioa

Eb= Eskaintza baxuena

Le= Lizitatzzailearen eskaintza

Puntuazio guztia modalitate bakoitzean lortutako puntuak gehitzen egingo da.

**2.- Esku-hartze proiektua:** Gehienez 65 p.

- Laneko metodologia: faseak, denborak, parte hartzen duten agenteak, koordinazioak erabilitako teknikak, agiri euskarriak, ebaluaketa sistema, 56p arte era honetara zehaztuta:

- Programa 1: 10p arte
- Programa 2: 10p arte
- Programa 3: 8p arte
- Programa 4: 8p arte
- Programa 5: 5p arte
- Programa 6: 5p arte
- Programa 7: 5p arte
- Ikerketa: 5p arte

- Zerbitzuaren ebaluaketa sistema: Gehienez 9p

Esku-hartze proiektu dokumentua gehienez ere 90 orrietan 2 aldeetatik garatuko da; letra arial, 10 tamaina gutxienekoa eta A4 formatuan. Ezarritako gehiengo kopurua gainditzen bada, 5 orri bakoitzeko -2 puntuekin edo frakzioa penalizatuko da.

3.- Zerbitzua hobeto emateko eragina izan dezaketen aspektuak, gehienez 10 puntu, besteak beste:

- Zerbitzua gauzatu behar duen pertsonalaren formazio osagarria.
- Zerbitzuaren garapenerako enpresa-langileen arteko partehartze-foroak.

**10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:** plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

**11.- Aurkeztu beharreko agiriak:** Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**7.- TAO:** Kontratua aldatzeko proposamena.

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena, hau da:

## AURREKARIAK

I.- Dagokion espedientea tramitatu ondoren, 2014ko martxoaren 27an, kontratu administratiboa sinatu zen eta geroztik 2014ko azaroaren 18an aldaketa zela eta berriro sinatu zen, Beasaingo Udala eta GERTEK, S.A., enpresaren artean, Beasaingo bide publiko jakin batzuetan ibilgailuak aparkatzea kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeko zerbitzua kudeatzeko.

II.- Baldintza plegu teknikoaren, 18a-3.) artikulua honela dio: Ordaintzeko moduak:

- Txanponak, bost zentimotik gorako legezko txanponak sartzeko aukera emango du.
- Ordaintzeko txartel kargagarriak.
  - Txartel magnetikoak.
  - Identifikaziorako balio duten beste txartel magnetiko batzuk (bertakoentzat...)
  - Kreditu-txartelak eta txanpon-txartelak.

Kasu honetan erantsi beharko da sakelako telefono bidez ordaintzea.

III.- Kontuan izan baita ere gai honi buruz, Udaltzain-buruak egindako txostena.

## OINARRIAK (JURIDIKOAK)

- Legeri aplikagarria: Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua: 105, 106, 107 eta 234 artikulua (kontratua aldatzea ahalmentzen dutenak eta horretarako prozedura).
- Estatuko Kontratazio Administratiboaren Aholkularitza Batzordea. 27/12 Txostena, 2012ko abenduaren 14koa.
- Aragoiko Kontratazio Administratiboaren Aholkularitza Batzordea. 18/2013 Txostena, 2013ko irailaren 25koa.
- Lizitazioaren baldintza pleu agiria.

Herritarra Batzordeak ondorengo erabaki proposamena egiten dio GOBERNU BATZORDEARI:

**Lehenik.** GERTEK S.A.rekin sinatutako Beasaingo Udala eta GERTEK, S.A., enpresaren artean, Beasaingo bide publiko jakin batzuetan ibilgailuak aparkatzea kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeke zerbitzua kudeatzeko, kontratu administratiboa, termino hauetan aldatzea:

- Ordainketa egiteko garaian lehendik ezarrita dauden aukerez gain sakelako telefonoz egiteko aukera ere jartzea.
- Era berean adierazi, sakelako telefonoz ordainketa egin ondoren mezu bat jasoko da erabiltzaileei ordaindutako aparkatze denboraren egiaztagiri gisa gordetzeko. Baita ere salaketen baliogabetze ordainketa egiteko aukera emango du ordaindutako egiaztagiri gisa mezua jasoz.
- Kontratuaren urteko prezioa aldatzea. 143.690,47 € izatetik, 150.950,47 €koa izatea. Horrek esan nahi du, hileko faktura, 11.974,21 izatetik 12.579,21 €koa izatera pasatuko dela.

**Bigarren.** 2014-03-27an sinatutako kontratua eta geroztik 2014ko azaroaren 18an sinatutako aldaketa kontuan izanik beste estipulazioak ez dira aldatzen.

**Hirugarren.** Kontratuaren aldaketak (2014-11-18an egindakoa barne), hasierako kontratuaren %6,86ko igoera suposatzen duenez, behin betiko bermea proportzio berdinean egokitu egin beharko da, hau da, **1.601,65 €**ko diru kopurua metalikoan entregatuz edo **24.949,39 €**ko abala aurkeztuz. Hau aurkeztu ezker, lehen entregatutakoa itzuliko litzateke.

**Laugarren.** Alkateari baimena ematea, kontratuaren aldaketa sinatzeko.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

## **8.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakori aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, arratsaldeko zazpitan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.